

# Titereszena



2024-2025


EGITARUA | PROGRAMACIÓN  
TAILER ETA IKASTAROAK | TALLERES Y CURSOS  
ALDIZKAKO ERAKUSKETAK | EXPOSICIONES TEMPORALES  
ERAKUSKETAK ANBIGU ARETOAN | EXPOSICIONES EN LA SALA AMBIGÚ  
BISITA GIDATUAK | VISITAS GUIADAS  
BESTE EKITALDI BATZUK | OTROS EVENTOS

topic.

# Seinaletika

SEÑALÉTICA

---

 **Eguna / Día**

---

 Ordua / Hora

---

 Iraupena / Duración

---

 Lekua / Lugar

---

 Aholkatutako adina / Edad recomendada

---

 Hizkuntza / Idioma

---

**T** Teknikak / Técnicas

---

 Zuzendaritza / Dirección

---

 Egileak / Autores

---

 Antzezleak / Intérpretes

---

# Egitaraua

PROGRAMACIÓN

## El árbol de los zapatos

Cía PEA GREEN BOAT

## Blanca Nieves

Cía LA CHANA TEATRO

## El secreto del hombre más fuerte del mundo

Cía CARACARTÓN

## Kazú y los hombres voladores

Cía SINGE DIESEL

## Noa, uy, uy, uy

PANTHA REI Konpainia

## El silencio de Hamelín


Cía FARRÉS BROTHERS

## Gure Kanoa

ZURRUNKA Konpainia

## Almavera, sonata para violín y títeres

Cía ETCÉTERA





# PEA GREEN BOAT

Katalunia / Ingalaterra

## El árbol de los zapatos

Argazkilaria / Fotógrafo: Eduard Blanch

Timek ez du bere zapata aurkitu. Behin eta berriz bilatuko du, harik eta... Gris andreak pista bat emango dion arte. Timek jarraibideak jarraituko ditu eta txingoka salto eginda, zapaten bila jarraituko du. Autobus bat hartu beharko du, trol bati aurre egin eta baso ilun bat zeharkatu zapaten zuhaitzarengana iristeko.

*Tim no encuentra su zapato. Lo busca con insistencia hasta que la sra. Gris le da una pista. Tim sigue las indicaciones y saltando a la pata coja continúa la búsqueda de su zapato. Tendrá que coger un autobús, enfrentarse a un trol, y cruzar un bosque oscuro para llegar al árbol de los zapatos.*

 **Urriak 19 de octubre**

 18:30

 45'

 TOPIC

 4 urtetik aurrera / A partir de 4 años

 Gaztelera / Castellano

 Mahai txotxongiloak / Titeres de mesa

 Eduard Blanch

 Emilia Esteban

 Emilia Esteban

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTRES



# LA CHANA TEATRO

Salamanca



## Blanca Nieves

Argazkilaria / Fotógrafa: Marta Santos

Duela urte asko, pila bat, eskualde urrun batean, elurte ikaragarri bat erori zen. Eta honaino ez da ezer gertatu, baina orain istilua dator: Erregina apetatsua, bere benetakoz gauzetan pentsatuta, oso distraitua josten zuen. Eta bederatzi hilabetetan, erregin-desioa izateagatik, neskato eder bat etorri zen mundu hilgarri honetara: Edurnezuri!

*Hace muchos, muchos años, exactamente un montón, en una remota región, cayó una inmensa nevada. Y hasta aquí no pasa nada, pero ahora viene el lío: Una reina caprichosa, pensando en sus reales cosas, muy distraída cosía. Y a los nueve meses justos, por ser deseo real, vino a este mundo mortal, una preciosa niña: ¡Blancanieves!*

 **Azaroak 16 de noviembre**

 18:30

 60'

 TOPIC

 6 urtetik aurrera / A partir de 6 años

 Gaztelera / Castellano

 T Objektu antzerkia / Teatro de objetos

 Jaime Santos

 Jaime Santos

 Jaime Santos



# CARACARTÓN

Sevilla



## El secreto del hombre más fuerte del mundo

Argazkilaria / Fotógrafo: Chema Rivera

Tatán Zirku Handia apartekoa da, gure protagonista bezala: Milon de Crotón, ¡Munduko gizonik indartsuena!, gauza harriarriak egiteko gai dena, baina eguna bukatzean... Milon bakarrik erretiratzan da, besteen begiradetatik urrun, zergatik?... sekretu bat duelako.

*El Gran Circo Tatán es extraordinario como nuestro protagonista: Milón de Crotón, ¡El hombre más fuerte del mundo!, capaz de hacer cosas asombrosas, pero al acabar la jornada... Milón se retira solitario, lejos de las miradas de los demás, ¿por qué?... porque guarda un secreto.*

 **Abenduak 14 de diciembre**

 18:30

 45'

 TOPIC

 4 urtetik aurrera / A partir de 4 años

 Gaztelera / Castellano

 Mahai txotxongiloak / Titeres de mesa

 Eva Rodríguez

 Paola Román

 Paola Román

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTRES



# SINGE DIESEL

Frantzia



## Kazú y los hombres voladores

Argazkilaria / Fotógrafa: Julie Fauglas

Kazu erabat maiteminduta dago Lourekin, baina Lou dagoeneko ez dago. Hala ere, maitasunak bizirik eta alai jarraitzen du... Txotxongiloak, musika eta zuzeneko marrazkiek talka egingo dute poesia hunkigarri eta filosofiko bat sortzeko.

*Kazu está perdidamente enamorado de Lou, pero Lou ya no está. Sin embargo, el amor sigue vivo y alegre... Marionetas, música y dibujos en vivo chocan para crear una poesía conmovedora y filosófica.*

 **Urtarrilak 18 de enero**

 18:30

 45'

 TOPIC

 8 urtetik aurrera / A partir de 8 años

 Gaztelera / Castellano

**T** Irudiak, txotxongiloak eta objektuak /  
Imágenes, títeres y objetos

 Juan Pérez Escala

 Juan Pérez Escala

 Juan Pérez Escala



# PANTA RHEI

Euskal Herria



## Noa, uy, uy, uy

Argazkilaria / Fotógrafo: César San Millán

Noak ia hiru urte ditu eta berezkoa, librea, ipurtarina, bihurria, jostalaria eta barre-garria da. Bere aitona-amonak urrun eta oso lasai bizi dira. Egun apartak izango dira denentzat. Noa haiekin egun batzuk pasatzera joateak irauli egingo ditu haien bizitza monotonoak.

*Noa casi tiene tres años, espontánea, libre, inquieta, traviesa, juguetona y graciosa. Su abuela y su abuelo viven lejos y muy tranquilos. Serán días extraordinarios para todos. La llegada de Noa a pasar unos días con ambos dará la vuelta a sus monótonas vidas.*

### Otsailak 8 de febrero

 18:30

 45'

 TOPIC

 2 urtetik aurrera / A partir de 2 años

 Euskara / Euskera

 Aktoreak eta txobxongiloak / Actores y títeres

 Juan Rodríguez Aristegi

 Emilio Fernández de Pinedo

 Idoia Ayestaran & Emilio Fdz. de Pinedo

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTRES



# FARRÉS BROTHERS

Katalunia



## El silencio de Hamelín

Argazkilaria / Fotógrafo: Arian Botey

Clara eta Bruno neba-arrebak dira. Hamelín hirian gertatu zena bizi izan zuten bi haur dira. Orain, helduak direla, pertsonaia bitxi batek gertatutakoa berriro kontatzeko eskatuko die. Batzuetan, iraganera itzuli behar izaten da gauzak bere lekuan jartzeko.

*Clara y Bruno son hermanos. Son dos de los niños que vivieron aquello que pasó en la ciudad de Hamelín. Ahora que son mayores, un extraño personaje les pide volver a contar lo sucedido. A veces, hace falta volver al pasado para poner las cosas en su sitio.*

 **Martxoak 22 de marzo**

 18:30

 55'

 TOPIC

 8 urtetik aurrera / A partir de 8 años

 Gaztelera / Castellano

**T** Txotxongiloak eta objektuak /  
Títeres y objetos

 Jordi Palet Puig

 Farrés brothers

 Olalla Moreno, Jordi Farrés &  
Pep Farrés



# ZURRUNKA

Euskal Herria



## Gure Kanoa

Argazkilaria / Fotógrafa: Amaia Garrosa

*Gure Kanoa*, Abba, Senegaleko arrantzale familia batean jaio tako haur ausart zein xarmagarriaren istorioa dugu. "Arrainen Etxean" arrantza egiten jarraitu ahal izateko, Abba abentura luzean murgilduko da, bi mundu ezberdinen kulturak hurbilduz.

*Gure Kanoa es la historia de Abba, un niño tan encantador como atrevido, nacido en una familia de pescadores senegaleses. Para poder continuar pescando junto a su padre en la "Casa de los Peces", Abba se embarcará en un largo viaje, acercando la realidad de dos culturas.*

 **Apirilak 5 de abril**

 18:30


 65'

 TOPIC

 4 urtetik aurrera / A partir de 4 años

 Euskara / Euskera

**T** Mahai txotxongiloak / Titeres de mesa

 Josu Cámara

 Eñaut Gorbea, Josu Cámara & Odei Arregi

 Eñaut Gorbea eta/y Odei Arregi

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTHERES



# ETCÉTERA

Granada



## Almavera, sonata para violín y títeres

Argazkilaria / Fotógrafa: Ana Lanz

Dena izanda ere, ezer interesatzen ez zaion Almavera izeneko neska bati buruzko istorioa da; bizitzeko plazera sentitzen ez duena. Bat-batean Vittorino iritsiko da, biolin-jotzaile grinatsua, eta Espiral mendira joango da, arrakastaren eta loriaren bila. Horrek aldatu egingo du Almaveraren bizitza.

*Esta es la historia de Almavera, una chica que teniéndolo todo no le interesa nada; de alguien que no siente placer por la vida. La llegada repentina de Vittorino, un apasionado violinista, que se dirige al Monte Espiral, en busca de éxito y gloria, cambiará la vida de Almavera.*

 **Maiatzak 17 de mayo**

 18:30

 45'

 TOPIC

 3 urtetik aurrera / A partir de 3 años

 Gaztelera / Castellano

**T** Marotte, hagaxka eta beste batzuk /  
Marotte, varilla y otros

 Enrique Lanz

 Yanisbel Martínez & Enrique Lanz

 Enrique & Leo Lanz

# Sormen-egonaldiak

## RESIDENCIAS DE CREACIÓN

---

2024 - 2025 sormen-egonaldiak | Residencias de creación 2024 - 2025

---

**Urria / octubre:** A la sombra & Alabazan, Andalucía eta Euskal Herria / Andalucía & País Vasco  
Desequilibrio teatro, Madril / Madrid

**Azaroa / noviembre:** Onírca mecánica, Murtzia / Murcia

---

TOPIC-ek, txotxongiloen ikusizunak sortzeko prozesua errazte aldera, kultur erakundeen eskura dagoen gune bat eskaintzen du, 65 m<sup>2</sup>-ko espazio bat (7,56 m. zabal x 8,60 luze x 4,4 m. garai).

Sormen-egonaldia egiteko interesa duten konpainientzako, TOPIC-ek apartamentu bat eskaintzen du, eraikuntzaren 3. solairuan kokatuta dagoena. Etxebizitzak 3 logela bikoitz -bakoitza bere bainugelarekin-, sukalde ekipatua eta egongela ditu. TOPIC-ek entseguak egiteko gune bat ere eskainiko du, oinarrizko argiztapen eta audio ekipoarekin, interesdunek entseguak egin ditzaten ikuskizuna garatzeko eta publikoarekin, halakorik balego.

Erabilgarri dagoen jakiteko, jarri harremanetan ekoizpen-bulegoarekin, [produccion@cittolosa.com](mailto:produccion@cittolosa.com) helbidean.

El TOPIC cuenta con un espacio que pone a disposición de entidades culturales para facilitar el proceso de creación de espectáculos de marionetas. Tiene una superficie de 65 m<sup>2</sup> (7.56 m. ancho x 8.60 largo x 4.4 m. de altura).

Para la compañía que esté interesada en realizar la residencia de creación, el TOPIC ofrece un apartamento que está ubicado en la 3er planta del edificio. La vivienda cuenta con 3 habitaciones dobles con baño, cocina equipada y sala de estar. El TOPIC facilitará el lugar para un ensayo con equipo de iluminación y audio básico a fin del desarrollo del espectáculo y el público, si lo hubiera.

Para conocer la disponibilidad ponerse en contacto con la oficina de producción. [produccion@cittolosa.com](mailto:produccion@cittolosa.com)

# Tailer eta ikastaroak

TALLERES Y CURSOS

## Famili tailerrak

TALLERES FAMILIARES

## Txotxongilo ikastaroak

CURSOS DE TÍTERES

## Kanpoko tailerrak

TALLERES EXTERNOS

## Barazki txotxongilo tailerra

TALLER DE TÍTERES CON VERDURAS

## Goiz bat TOPIC-en

UNA MAÑANA EN EL TOPIC

## PLATOPIC Online Tailerrak

TALLERES ONLINE PLATOPIC

## Eskola Kanpaina 2024/25

CAMPAÑA ESCOLAR 2024/25



# Famili tailerrak

Talleres familiares

## Tailerra + Ikuskizuna

Larunbatero, urritik maiatzera bitartean, tailer bat eskainiko dugu, ikuskizun batekin jarraian. Tailerra 17:00etan hasiko da, ondoren ikuskizuna 18:30etan. Belaunaldi ezberdinetako kideek elkarrekin sorkuntza-prozesu bat partekatzeo aukera paregabe bat da.

## Taller + Espectáculo

Todos los sábados, entre los meses de octubre a mayo, ofreceremos un taller seguido de un espectáculo. El taller comenzará a las 17:00, seguido del espectáculo a las 18:30. Esta será una oportunidad única para que miembros de diferentes generaciones compartan juntos un proceso de creación.



Emanaldien datak ikusi

Ver fechas de los espectáculos



17:00



Familiakide guztientzat / Para toda la familia

topic.

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTHERES

# Txotxongilo ikastaroak


Cursos de títeres

Gabonetako eta Aste Santuko oporraldietan ikastaro ezberdinak prestatuko ditugu, eta horietako bakoitza teknika ezberdin batetan oinarrituko da. Ikastaro hauek sorkuntza eta dramaturgia aztertzeke aukera eskaintzen dute, arte honen hainbat alderdi jorratuz.

## Neguko kanpaina

Campaña de Invierno

 **Abenduak 26,27 de diciembre**

 09:30-12:30


 +6

Durante las vacaciones de Navidad y Semana Santa, hemos preparado una variedad de cursos, cada uno de ellos se enfocará en una técnica distinta. Estos cursos ofrecen la oportunidad de explorar la creación y la dramaturgia, abarcando diversos aspectos de este arte.


## Udaberriko kanpaina

Campaña de Primavera

 **Apirilak 16,17,18 de abril**

 09:30-12:30

 +6



# Kanpoko Tailerrak

Talleres externos

Txotxongiloen mundua pertsona guztientzat eskuragarri izatea nahi dugu. Horregatik, edozein espazio, ordutegi eta formaturi egokitzen zaion tailer ibiltari bat eskainiko dugu. Honela, behar ezberdinen arabera ikastetxe, elkarte, edo beste talde batzuetara gerturatuko gara.

Queremos que el mundo del títere sea accesible a todas las personas. Por ello, ofrecemos un taller itinerante que se adapta a cualquier espacio, horario y formato. Este taller se acercará a colegios, asociaciones, comunidades u otros grupos según sus necesidades.



Hitzartua / Concertado



+6



topic.

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES



# Barazki txotxongilo tailerra

Taller de títeres con verduras

Tolosako Udala, Merkataritza, Feriak eta Turismo Sailarekin elkarlanean.

Tailer honek elikadura eta sor-kuntza jasangarria sustatzen du. Tolosako azokan ikusi dezakegun garaiko produktuk ezagutuko ditugu txotxongi-loak sortzen ditugun bitartean. Aukera bikaina da familia osoak elkarrekin parte har dezan!

En colaboración con el Ayuntamiento de Tolosa. Departamento de Comercio, Ferias y Turismo.

Este taller promueve la alimentación y la creatividad sostenible. Aprenderemos sobre los productos de temporada de la feria de Tolosa mientras creamos títeres. ¡Es una excelente oportunidad para que toda la familia participe junta!



**Martxoak 9 de marzo**



11:30



Ikuslego guztientzat / Todos los públicos



# Goiz bat TOPIC-en

Una mañana en el TOPIC

Ikastetxe eta talde ezberdinek TOPIC-era etortzeko malgutasun osoa izango dute ikuskizunik eskaintzen ez den egunetan. Formatu honetan, talde bakoitzaren beharretara egokitutako txotxongilo tailerra eta museoko bisitak antolatzen dira.

Los días sin espectáculo, los centros escolares y diferentes grupos tienen la flexibilidad de elegir la fecha que mejor les convenga para visitar el TOPIC. En este formato, ofrecemos talleres adaptados a las necesidades de cada grupo, como la visita al museo.



Hitzartua / Concertado



10:00-12:00



+ 4



8€ Bisita gidatua izateko aukera;  
60€ko osagarria talde bakoitzeko  
Posibilidad de bisita guiada;  
complemento de 60€ por grupo

943 650 414

[pedagogia@cittolosa.com](mailto:pedagogia@cittolosa.com)

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTRES

# PLATOPIC Online Tailerrak

Talleres Online PLATOPIC

Teknologia berriei esker, TOPIC-era gerturatzeko aukerarik ez baduzue, txotxongi-loaren mundua ezagutu eta ikasgelatik irten gabe, tailer bat egiteko aukera eskainiko dizuegu.

Gracias a las nuevas tecnologías, si no podéis trasladaros al TOPIC, ofrecemos la opción de descubrir el mundo del títere y realizar un taller sin salir del aula.



**Hitzartua / Concertado**



Lehen Hezkuntzatik aurrera  
A partir de Educación Primaria

---

[pedagogia@cittolosa.com](mailto:pedagogia@cittolosa.com)



# Eskola Kanpaina 2024/25

Campaña Escolar 2024/25

Gure Eskola Kanpaina, 4 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzendutako jarduera da. Egun horretan, txotxongilo ikusizunak, artistekin hitzaldiak, talde bakoitzari egokitutako tailerrak eta museoko erakusketen bisitak antolatzen dira.

La Campaña Escolar es una programación dirigida al alumnado de 4 a 16 años que se realiza en el TOPIC. Incluye espectáculos de títeres con charlas de artistas, talleres adaptados a cada grupo y visitas al museo, como a la exposición temporal.



Urriak 18 de octubre

Azaroak 15 de noviembre

Abenduak 13 de diciembre

Urtarrilak 17 de enero

Otsailak 7 de febrero

Martxoak 21 de marzo

Apirilak 4 de abril

Maiatzak 16 de mayo



10:00 -15:00 edo/o 10:00 - 12:00



+ 4



Ikuskizuna + Museoa + Tailerra  
Espectáculo + Museo + Taller  
(10:00-15:00)

12 €

Ikuskizuna + Museoa  
Espectáculo + Museo  
10:00-12:00

8 €

943 650 414

[pedagogia@cittolosa.com](mailto:pedagogia@cittolosa.com)

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES

# Aldizkako erakusketak

EXPOSICIONES TEMPORALES

## Aldizkako Erakusketa Aretoa

SALA DE EXPOSICIONES TEMPORALES

### L'Estaquirot Teatrenen 50 urte

50 AÑOS DE L'ESTAQUIROT TEATRE

### Girovago e Rondella

GIROVAGO E RONDELLA

## Erakusketak Anbigu Aretoan

EXPOSICIONES SALA AMBIGÚ

### L'Estaquirot Teatrenen 50 urte

50 AÑOS DE L'ESTAQUIROT TEATRE

### Nestor Basterretxea eta Altzoko Handia

NÉSTOR BASTERRETXEYA Y EL GIGANTE DE ALZO

### Gonzalo Cañas Olmeda

GONZALO CAÑAS OLMEDA

## Kanpoko Erakusketak

EXPOSICIONES EXTERNAS

### Zentro Dramatiko Nazionala, Madril

CENTRO DRAMÁTICO NACIONAL, MADRID

### Victoria Eugenia Antzokia, Donostia

TEATRO VICTORIA EUGENIA, SAN SEBASTIÁN

# L'Estaquirot Teatreran 50 urte

50 AÑOS DE L'ESTAQUIROT TEATRE



2024ko irailetik 2025eko martxora  
de septiembre de 2024 a marzo de 2025

Bost hamarkada hauetan zehar, L'Estaquirot Teatre antzerki komunitatearentzat inspirazio iturri izan da, bere ekoizpen berri zaileekin eta bikaintasun artistikoarekiko duen konpromiso sendoarekin ikusleak liluratuz.

Erakusketa honetan, L'Estaquirot Teatreran historia liluragarrian murgilduko gara, hasiera xumeetatik antzerki munduko gaur egungo garrantzira arte, txotxongiloen, argazkien, dokumentu historikoen, jantzien eta eszenako objektuen bidez.

Durante estas cinco décadas, L'Estaquirot Teatre ha sido un faro de inspiración para la comunidad teatral, deslumbrando a audiencias con sus producciones innovadoras y su compromiso inquebrantable con la excelencia artística.

En esta exposición, nos sumergiremos en la fascinante historia de L'Estaquirot Teatre, desde sus humildes comienzos hasta su prominencia actual en el mundo del teatro, a través de títeres, fotografías, documentos históricos, vestuario y objetos escénicos.



topic.

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES

## Girovago e Rondella

GIROVAGO E RONDELLA



2025eko martxotik 2025eko irailera  
de marzo a septiembre de 2025

Marco Grignani eta Federica Lacomba, Girovago y Rondella konpainiakoak, beren hogeita hamar urteko ibilbide oparoa partekatzen dute.

Erakusketak beren ikuskizun ospetsuenetako eszenografiak eta osagarriak barne hartuko ditu, urteetan zehar sortutako automaten eta eskultura animatuen bilduma batekin batera, eta horietako asko lehen aldiz erakutsiko zaizkio publikoari. Oroimena, artea, bidaia eta bizitza esperientzia artistiko organiko honetan uztartzen dira, oraindik asko kontatzeko duena.

Marco Grignani y Federica Lacomba, de la compañía Girovago y Rondella, comparten el vasto recorrido de sus treinta y nueve años de trayectoria.

La exposición incluirá escenografías y accesorios de sus espectáculos más emblemáticos, junto con una colección de autómatas y esculturas animadas creadas a lo largo de los años, muchas de las cuales se mostrarán al público por primera vez. Memoria, arte, viaje y vida se entrelazan en esta experiencia artística orgánica que aún tiene mucho por contar.



# L'Estaquirot Teatren 50 urte

50 AÑOS DE L'ESTAQUIROT TEATRE



2024ko irailetik 2025eko otsailera  
de septiembre de 2024 a febrero de 2025

L'Estaquirot Teatren aldi baterako erakusketa osatuz, Anbigu aretoak konpainia horrek egin zuen tailerreko lanaren lagin txiki bat hartuko du. Ezagutu ezazu erakusketa honetan, nolakoak diren sorkuntza prozesuak, zer dagoen eszenatokien atzean eta nondik sortzen diren txotxongiloak.

Complementando la exposición temporal de L'Estaquirot Teatre, la sala Ambigú acogerá una pequeña muestra del trabajo de taller que realizó esta compañía. Cómo son los procesos de creación, qué hay detrás de los escenarios, de dónde nacen las marionetas, averígualo en esta muestra.




topic.

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTHERES



## Nestor Basterretxea eta Altzoko Handia

NÉSTOR BASTERRETXEA Y EL GIGANTE DE ALZO

 **2025eko martxotik apirilera  
desde marzo a abril de 2025**

Nestor Basterretxearen jaiotza-  
ren mendeurrenean (Bermeo,  
Bizkaia, 1924-Hondarribia, Gi-  
puzkoa, 2014), Altzoko Erral-  
doiaren haurrentzako opera  
ekoizteko egindako lana era-  
kutsi nahi dugu. Zirriboratuak  
eta marraztuak, bere familia  
arduratu zen 2016an estreina-  
tutako lan honetan erabilitako  
txotxongilo eta eszenografiaren  
eraikuntzaz.

En el centenario del nacimiento  
de Néstor Basterretxea (Bermeo,  
Bizkaia, 1924-Hondarribia, Gi-  
puzkoa, 2014) queremos mostrar  
el trabajo realizado para la pro-  
ducción de la ópera infantil de  
El Gigante de Alzo. Boceteados  
y dibujados por él mismo, fue su  
familia quien se encargó de la  
construcción de las marionetas y  
escenografía empleadas en esta  
obra estrenada el año 2016.



# Gonzalo Cañas Olmeda

GONZALO CAÑAS OLMEDA



**2025eko maiatzetik ekainera  
desde mayo a junio de 2025**

Gonzalo Cañas aktore eta txotxongilolariaren lanari eskainitako erakusketa, bere ibilbide profesionalari omenaldi gisa. Cuencan jaiotako baina betidanik Madrilen bizi zen txotxongilolari beteranoa, Gonzalo txotxongiloekin zerikusia zuen ekintzaile peto-petoa eta aktibista izateaz gain, Espainiako txotxongiloen historiako ikeretzailerik trebeenetakoa izan zen.

Exposición dedicada a la obra del actor y titiritero Gonzalo Cañas como homenaje a su trayectoria profesional. Veterano titiritero nacido en Cuenca, pero desde siempre residente en Madrid, Gonzalo fue además de un emprendedor nato y activista de cuanto tuviera que ver con las marionetas, uno de los más sagaces investigadores de la historia de los títeres en España.



**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES

## Zentro Dramatiko Nazionala, Madril

CENTRO DRAMÁTICO NACIONAL, MADRID



2024ko irailetik 2025eko uztaiera  
de septiembre de 2024 a julio de 2025

2013az geroztik, TOPIC-ek lankidetzak emankorra mantendu du Zentro Dramatiko Nazionalarekin, TITERESCENA programaren bidez, aurten 10. urteurrena ospatuz.

TOPIC-ek talentua sustatu eta garatu nahi du txotxongiloen arloan, etengabeko hazkundea eta berrikuntza bermatuz. Bere museo xarmagarriarekin, murgiltze egoitzekin eta lankidetzak dinamikoekin, TOPIC txotxongiloen arteen munduko sormen eta bikaintasunezko itzasargi bat da.

Lankidetzak horren bidez, Zentro Dramatiko Nazionalak erakusketak hau Madrilgo Lavapiés auzoko Valle Inclán antzokian edukitzeko aukera emango dio TOPIC-i, 2024-2025 denboraldian Mirlo aretoko eta Nieva aretoko hall-ean ikusgai egon dadin.

Desde 2013, TOPIC ha mantenido una fructífera alianza con el Centro Dramático Nacional a través del programa TITERESCENA que este año cumple su 10. Aniversario.

TOPIC busca fomentar y desarrollar el talento en el campo de los títeres, asegurando su continuo crecimiento e innovación. Con su encantador museo, residencias inmersivas y colaboraciones dinámicas, TOPIC se erige como un faro de creatividad y excelencia en el mundo de las artes de los títeres.

A través de esta colaboración, el Centro dramático Nacional brinda a TOPIC la oportunidad de poder proponer esta exposición en el teatro Valle Inclán del barrio madrileño de Lavapiés. visible en el hall de la sala Mirlo y la sala Nieva durante la temporada 2024 - 2025.



## Victoria Eugenia Antzokia, Donostia

TEATRO VICTORIA EUGENIA, SAN SEBASTIÁN

 2024 azaroa | noviembre

TOPIC-ek lankidetzeta berria estreinatuko du Victoria Eugenia Antzokiarekin, eta bere urteko erakusketen eskaintzari erakusketa txiki bat gehituko dio Donostiako Victoria Eugenia Antzokiaren hall-ean, azaroaren 9tik 16ra.

TOPIC, txotxongiloen antzerkiaren garapenean duen bikaintasunagatik eta dedikazioagatik aitortua, munduko hainbat lekutatik ekarritako txotxongiloen bilduma liluragarria du, klasiakoetatik garaikideetara. Erakusketa honek erakusten diren pertsonaia bakoitzaren historia, teknika eta magia hurbiletik ezagutzeko aukera eskainiko du.

TOPIC estrena kolaboración con El teatro Victoria Eugenia añadiendo a su oferta anual de exposiciones una pequeña muestra en hall del Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián desde el 9 al 16 de noviembre.

TOPIC, reconocido por su excelencia y dedicación al desarrollo del teatro de títeres, trae una colección fascinante que incluye marionetas de diversas partes del mundo, desde las clásicas hasta las contemporáneas. Esta exposición ofrece una mirada íntima a la historia, la técnica y la magia detrás de cada personaje expuesto.

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES



# Bisita gidatuak

VISITAS GUIADAS

## Bisita gidatu egokitua

VISITA GUIADA ADAPTADA

## Bisita gidatua TOPIC-eko biltegirira

VISITA GUIADA AL ALMACÉN DE TOPIC

## Bisita gidatu arrunta

VISITA GUIADA SIMPLE

## Bisita gidatu antzeztua

VISITA GUIADA TEATRALIZADA

## Txotxongilolaritza eta emakumea

TÍTERES EN FEMENINO



# Bisita gidatu egokitua

VISITA GUIADA ADAPTADA



Ikuslego guztientzat / Todos los públicos

5-15Pax



60€ gida + museoko sarrera

60€ guía + entrada del museo

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Aniztasun funtzionala duten pertsonentzat egokitutako bisita gidatua. Bisita bisitaria protagonista den esperientzia gisa ulertzen da, azalpen-edukiez gain haien ongizatea eta gozamina azpimarratuz batez ere.

Visita guiada adaptada dirigida a personas con diversidad funcional. La visita se entiende como una experiencia en la que el/la visitante es el/la protagonista de esta, haciendo hincapié sobre todo en su bienestar y disfrute, además de en los contenidos explicativos



**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAUJ EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES

# Bisita gidatua TOPIC-eko biltegitira

VISITA GUIADA AL ALMACÉN DE TOPIC



Ikuslego guztientzat / Todos los públicos



5-10 Pax

60€ gida + museoko sarrera

60€ guía + entrada del museo

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Inoiz galdetu al diozu zeure bu-ruari nola gordetzen eta erre- gistratzen diren museo bateko piezak? TOPIC-eko Museo eta Dokumentazio saileko ardura- dunarekin batera, ikusgai ez dauden eta ikusgai dagoen gure biltegian dauden pieza batzuk ikusi ahal izango ditu bisitariak. Pieza batek museora iristean egiten duen ibilbidea ezagutuko dugu, kasu praktiko baten bidez erregistratzeko eta katalogatze- ko etapak ezagutuz.

¿Alguna vez te has preguntado cómo se almacenan y registran las piezas de un museo? Acompañados por el responsable del departamento de Museo y Documentación de TOPIC, el/la visitante podrá visualizar una serie de piezas, antes no expuestas, que descansan en nuestro almacén. Conoceremos el recorrido que realiza una pieza a su llegada al museo a través de las diferentes etapas de registro y catalogación, mediante un caso práctico.



# Bisita gidatu arrunta

VISITA GUIADA SIMPLE

## Nahierara | A la carta

 Ikuslego guztientzat / Todos los públicos

5-15Pax

€ 60€ gida + museoko sarrera  
60€ guía + entrada del museo

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

## Hilekoak | Mensuales


 Hileko azken larunbata

Último sábado de cada mes

 Ikuslego guztientzat / Todos los públicos

5-15Pax

€ 6€ helduak /4€ 12 urte arteko haurrek  
6€ adultos y 4€ niñas/niños hasta 12 años

 11:30 (euskara) 12:30 (castellano)

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Bisitaria txotxongiloaren munduko sekretuak eta altxor magikoak erakutsi, gorde, babestu eta ikertzen dituen leku batean sartzen dela konturatzeko moduan diseinatua dago museoa. Bisita joko bat, aurkikuntza bat bezala aurkezten da, bertan jakinmina eta konplizitatea ezinbestekoak direlarik.

El museo está diseñado de forma que el/la visitante se da cuenta que acude a un lugar que guarda, protege, investiga y muestra los secretos y tesoros mágicos del mundo del títere. La visita se plantea como un juego, un descubrimiento donde la curiosidad y la complicidad son fundamentales.

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES



# Bisita gidatu antzetzua

VISITA GUIADA TEATRALIZADA

## Nahierara | A la carta

 Ikuslego guztientzat / Todos los públicos

5-15Pax

€ 100€ gida + museoko sarrera  
100€ guía + entrada del museo

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

## Hilekoak | Mensuales


 Hileko lehen larunbata

Primer sábado de cada mes

 Ikuslego guztientzat / Todos los públicos

5-15Pax

€ 10€ helduak / 8€ 12 urte arteko haurrek  
10€ adultos y 8€ niñas/niños hasta 12 años

 11:30 (euskara) 12:30 (castellano)

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Familiarentzat eta haurrentzat diseinatutako bisita gidatua, anzerkiaren diziplina artistikoan arreta jarriz. Ikuspuntu honek hezkuntza eta entretenimendua uztartzen ditu, eta bisitariei museoko txokoak beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera ematen die.

Visita guiada diseñada para familias y niños y niñas poniendo énfasis en la disciplina artística del teatro. Este enfoque combina la educación con el entretenimiento, permitiendo a los y las visitantes conocer los diferentes rincones del museo desde una perspectiva diferente.



# Txotxongilaritza eta emakumea

TÍTERES EN FEMENINO

Genero-ikuspegi batetik txotxongilaritzaren historian eta gaurkotasunean emakumearen papera zein den nabarmentzeko bisita gidatua. Ezagutu ezazu zein paper bete zuen eta betetzen duen emakumeak txotxongiloen munduan, nortzuk diren haren heroiak, sortzaileak, zuzendariak, antzezleak eta artistak.

Visita guiada que enfatiza en el papel de la mujer en la historia y actualidad del mundo del títere desde una perspectiva de género. Conoce esta realidad que desempeñó y desempeña la mujer dentro del mundo del títere, cuáles son sus heroínas, creadoras, directoras, actrices y artistas.

 2024 urriak 19 de octubre 2024  
2025 martxoak 8 de marzo 2025

 11:30 (euskara) 12:30 (gaztelania)

5-15Pax

€ 6€ helduak /4€ 12 urte arteko haurrek  
6€ adultos y 4€ niñas/niños hasta 12 años

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES



# Beste ekitaldi batzuk

OTROS EVENTOS

## **Aniztasunaren Gala**

GALA DE LA DIVERSIDAD

## **Europako Ondare Jardunaldiak**

JORNADAS EUROPEAS DE PATRIMONIO

## **42. Titirijai jaialdia**

42ª EDICIÓN DEL TITIRIJAI

## **Sarrera solidarioa**

ENTRADA SOLIDARIA

## **Txotxongiloen Nazioarteko Eguna**

DÍA INTERNACIONAL DE LA MARIONETA

## **Museoen Nazioarteko Eguna**

DÍA INTERNACIONAL DE LOS MUSEOS



# Aniztasunaren Gala

GALA DE LA DIVERSIDAD

 **Urriak 12 de octubre**

 Ikuslego guztientzat / Todos los públicos

 19:00

 5€

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Aniztasunaren Gala musika, dantza eta antzerkiaren ospakizuna da, aniztasunetik sortzeko espazioa eskaintzen duena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Emanaldiek erakutsiko dute arteak ez duela mugarik eta museoen balioa berretsiko dute etorkizun bidezko, justu eta jasangarri bat eraikitzeko. Gainera, museoen konpromisoa azpimarratuko da, komunitatearentzako topagune eta artistentzako garapen espazio gisa.

La Gala de la Diversidad es una celebración de música, danza y teatro que ofrece un espacio de creación desde la diversidad, con el apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Las actuaciones demostrarán que el arte no tiene límites y reafirmarán el valor de los museos en la construcción de un futuro equitativo, justo y sostenible. Además, se destacará el compromiso de los museos como puntos de encuentro para la comunidad y espacios de desarrollo para los artistas.

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTULOS

# Europako Ondare Jardunaldiak

JORNADAS EUROPEAS DE PATRIMONIO

 **Urriak 19 de octubre**

 Familiarra / Familiar

 Tailerra / Taller 17:00  
Ikuskizuna / Espectáculo 18:30

€ Helduak / Adultos 10€  
Umeak / Niños y niñas 8€

Kontaktua / Contacto

**943 650 414** [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Frantziako Arketal konpainia, txotxongiloen eta panpinen sorkuntzan duen maisutasunagatik ezaguna, 2024ko Europako Ondare Jardunaldietako protagonista izango da, *"Kultura ibilbideak, sareak eta topaguneak"* lelopean. Tailer bat eskainiko dugu, non parte-hartzaileek panpinen eraikuntza eta manipulazio artisau-teknikak ikasteko aukera izango duten. Eguna amaitzeko, Pea Green Boat kataluniar - ingeles konpainiaren *El árbol de los zapatos* obrarekin gozatzeko aukera izango dugu.

La compañía francesa Arketal, reconocida por su maestría en la creación de títeres y marionetas, será una de las protagonistas de la edición 2024 de las Jornadas Europeas del Patrimonio, cuyo lema es *"Rutas culturales, redes y puntos de encuentro"*. Ofreceremos un taller donde los y las participantes podrán aprender las técnicas artesanales de construcción y manipulación de marionetas. Culminaremos la jornada con la actuación de la compañía catalano - inglesa Pea Green Boat con la obra titulada *El árbol de los zapatos*.



# 42. Titirijai Jaialdia

42ª TITIRIJAI



**Azaroak 23 de noviembre**  
**Abenduak 1 de diciembre**

Aurten, Onírca Mecánica konpainiaren *Verne* eta Guillem Albà-ren *Mà Solitud* bezalako ikuskizunez gozatu ahal izango dugu. Gainera, Italia jatorriko Zaches Teatro eta DiFilippo izango dira. Eta Frantziatik La Loquace eta l'Alinéa etorriko dira. Kaleetan Zurrunka konpainiaren *Bidakolore* ikuskizun ibiltariarekin eta DiFilippo konpainiaren *Pluma* ikuskizunarekin topo egingo dugu.

Publiko eta adin guztientzako ikuskizunez gozatzeko aukera izango dugu. Sektoreko profesionalekin topaketak eta jardunaldiak izango ditugu eta l'Estaqirot Teatre konpainia omenduko dugu. Formazioari dagokionez, UNIMA Euskal Herriarekin antolatutako Udazkeneko Eskola izango dugu, eta aurten Txotxongilo eta Objektu Antzerkiaren eszena ibiltariarekin zentratuko da, Zaches Teatro konpainiako zuzendaria den Luana Gramegnak emango duena.

Eta espero bezala, edizio hau TITIRIJAIren 42 urte hauetan oso garrantzitsuak izan diren bi pertsonari eskainiko diegu: Antxon Elozegi eta Txetxo Gaztañaga. Txotxongiloen festa Tolosan ospatzeko zain egongo gara, baina ez ahaztu datak gordetzea, jaialdi zirraragarri bat dugu zain!

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Este año podremos disfrutar de espectáculos como *Verne* de la compañía Onírca Mecánica y *Mà Solitud* de Guillem Albà. También de Zaches Teatro y DiFilippo procedentes de Italia. Y de Francia acudirán, La Loquace y l'Alinéa. Por las calles podremos encontrarnos con el espectáculo itinerante *Bidakolore* de la compañía Zurrunka y el espectáculo *Pluma* de la compañía DiFilippo.

Habrará espectáculos para todo tipo de público y edad. Tendremos jornadas y encuentros con profesionales del sector y homenajearemos a la compañía l'Estaqirot Teatre. En cuanto a la formación, tendremos la Escuela de Otoño organizada junto a UNIMA Euskal Herria, que este año se centrará en la creación escénica del Teatro de Titeres y Objetos impartido por Luana Gramegna, directora de la compañía Zaches Teatro.

Y como es de esperar, dedicaremos esta edición a dos personas muy importantes en el transcurso de estos 42 años de TITIRIJAI como son Antxon Elozegi y Txetxo Gaztañaga. staremos esperando a que la fiesta de los títeres se celebre en Tolosa, pero no olvidéis guardar las fechas, ¡nos espera un festival emocionante!

# Sarrera solidarioa

ENTRADA SOLIDARIA



## Abenduak 20 de diciembre

Tolosako Musika Eskolaren kontzertua  
Concierto de la Escuela de Música de Tolosa

## Abenduak 28 de diciembre

Ikuskizun solidarioa / Espectáculo solidario

€ 5€

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Data bereziak datoz. Egun batzuk familian pasatzeko eta haurrek, ilusioz beterik, Olentzerori eta Errege Magoei opariak ekartzeko gutunak idazteko. Baina denok dakigu familia batzuek zailtasunak dituztela hori lortzeko. Hori dela eta, abenduaren 20an Tolosako Musika Eskolaren kontzertuarekin eta abenduaren 28an ikuskizun batekin bildutako dirua, gazan horrenbeste sufritzen ari diren familiei laguntzeko erabiliko dugu UNRWA Euskadiren bitartez. Gainera, abenduaren 20tik abenduaren 28ra arte, TOPICeko sarreran elikagai-bilketarako gun bat edukiko dugu, gerora behar handiena dutenei banatuko zaiena.

Llegan unas fechas especiales. Unos días para pasarlos en familia y en los que los niños y niñas, llenos de ilusión, escriben sus cartas al Olentzero y los Reyes Mago para que les traigan regalos. Pero todos sabemos que hay algunas familias que tienen dificultades para lograrlo. Es por lo que lo recaudado los días 20 de diciembre, con el concierto de la Escuela de Música de Tolosa, y el día 28 de diciembre con un espectáculo, irá destinado a ayudar a familias de Gaza a través de UNRWA Euskadi. Además, desde el 20 de diciembre al 28 de diciembre, habilitaremos un punto de recogida de alimentos en la entrada del TOPIC que posteriormente se repartirá a los más necesitados.



# Txotxongiloen Nazioarteko Eguna

DÍA INTERNACIONAL DE LA MARIONETA

 **Martxoak 22 de marzo**

 Familiarra / Familiar

 Tailerra / Taller 17:00  
Ikuskizuna / Espectáculo 18:30

€ Helduak / Adultos 10€  
Umeak / Niños y niñas 8€

Kontaktua / Contacto  
**943 650 414** [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Martxoaren 21ean, Txotxongiloen Nazioarteko Eguna ospatzen da, hori dela eta, TOPICek urtero bezala zenbait ekintza ezberdin antolatuko ditu. Oraingo honetan, martxoaren 22an dugun Farres Brothers konpainia katalanaren *El silencio de Hemelin* izeneko antzezlanaz gozatu ahal izango dugu. Ikuskizuna baino lehen zuk zeuk txotxongilo bat eraikitzeke tailerra edukiko dugu. Eskura ezazu TOPIC-ek eskaintzen duen ikuskizuna + tailerra sarrera konbinatua eta goza ezazu arratsalde dibertigarri batez familian.

El 21 de marzo se celebra en todo el mundo el Día Internacional de la Marioneta y con tal motivo en el TOPIC, entre otras actividades que se van a organizar, te proponemos la posibilidad de poder construir tu propio títere en un taller impartido por el equipo de TOPIC previo al espectáculo propuesto el día 22 de marzo por la compañía catalana Farres Brothers y titulado *El silencio de Hemelin*. Hazte con la entrada combinada de espectáculo + taller que oferta el TOPIC y disfruta de una tarde divertida en familia.

**topic.**

2024 - 2025 TOLOSA  
TXOTXONGILOEN EGITARAU EGONKORRA  
PROGRAMACIÓN ESTABLE DE TÍTERES





# Museoen Nazioarteko Eguna

DÍA INTERNACIONAL DE LOS MUSEOS



**Maiatzak 18 de mayo**

Kontaktua / Contacto

943 650 414 [cit@cittolosa.com](mailto:cit@cittolosa.com)

Urtero bezala, TOPIC-ek bat egingo du 2025ko Museoen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Hurrengo edizio honetan gure ohiko kolaboratzaileekin lanean jarraituko dugu gure programazioan ezustekoren bat eskaintzeaz gain. Gainera, FOTOPIC, argazki jarduera museoaren barruan publiko guztientzako irekia, argazki jardunaldiak ospatuko ditugu.

Como cada año TOPIC se unirá a la celebración del día internacional de los museos 2025. En esta próxima edición seguiremos trabajando con nuestros y nuestras colaboradores/as habituales, además de ofreceremos alguna sorpresa en nuestra programación. Además, celebraremos las jornadas de fotografías FOTOPIC, actividad de fotografía dentro del museo abierta a todos los públicos.



# Titereszena

URRIA | OCTUBRE

AZAROA | NOVIEMBRE

ABENDUA | DICIEMBRE

URTARTE

## Egitaraua

PROGRAMACIÓN

El árbol de los  
zapatos

Blanca Nieves

El secreto del  
hombre más  
fuerte del mundo

Kaz  
ho  
vol

## Tailer eta ikastaroak

TALLERES Y  
CURSOS

Famili tailerrak | Kanpoko tailerrak | Goiz bat  
Talleres familiares | Talleres externos | Una mañ

Txotxongilo  
ikastaroak

Cursos de  
títeres

## Erakusketak

EXPOSICIONES

L'Estaquirot Teatrerren 50 urte | 50 años de L'Es

Victoria Eugenia Antzokia  
Teatro Victoria Eugenia  
Donostia San Sebastián

Zentro Dramatiko Nazion

## Bisitak

VISITAS

Bisita gidatu egokitua | Bisita gidatua TOP  
Visita guiada adaptada | Visita guiada al alr

Txotxongilaritza eta  
emakumea  
Títeres en femenino

## Beste ekitaldi batzuk

OTROS EVENTOS

Aniztasunaren gala  
Gala de la diversidad

Europako Ondare  
Jardunaldiak  
Jornadas Europeas de  
patrimonio

42. Titirijai  
Jaialdia

42ª Festival  
Titirijai

Sarrera  
solidarioa

Entrada  
solidaria

# 24/25

IRAILA | ENERO

OTSAILA | FEBRERO

MARTXOA | MARZO

APIRILA | ABRIL

MAIATZA | MAYO

Arzú y los  
ombres  
adores

Noa, uy, uy, uy

El silencio de  
Hamelín

Gure Kanoa

Almavera,  
sonata para  
violín y títeres

TOPIC-en | PLATOPIE Online Tailerrak | Eskola Kanpaina 2024/25  
ana en el TOPIC | Talleres online PLATOPIE | Campaña escolar 2024/25

Barazki txotxongilo  
tailerra

Talleres de títeres con  
verduras

Txotxongilo  
ikastaroak

Cursos de  
títeres

Estasquirote Teatre

Girovago e Rondella

Nestor Basterretxea eta Alitzoko Handia  
Néstor Basterretxea y el gigante de Alzo

Gonzalo Cañas  
Olmeda

Madrid, Madrid | Centro Dramático Nacional, Madrid

TOPIC-eko biltegiara | Bisita gidatu arrunta | Bisita gidatu antzetzua  
nacén de TOPIC | Visita guiada simple | Visita guiada teatralizada

Txotxongilolaritza eta  
emakumea

Títeres en femenino

Txotxongiloen  
Nazioarteko Eguna  
Día internacional de  
la marioneta

Museoen  
Nazioarteko Eguna  
Día internacional de  
los museos

# Titereszena

## ordutegia | horario

10:00-13:00

16:00-19:00

asteartetik ostiralera

de martes a viernes

10:30-14:00

16:00-19:30

asteburuak eta jai egunak

finés de semana y festivos

Itxita

Cerrado

astelehenak

lunes

[www.topic.eus](http://www.topic.eus)

topic.



@topictolosa

Museoa itxita egongo da urtarrilaren 1ean eta 6ean; urtarrilak 5 arratsalde, Inauterietan otsailaren 8tik 14ra, ekainaren 22an San Juan jaiengatik, uztailak 31 eta abenduaren 25ean. Eta abenduaren 24an eta 31n arratsaldez.

Museoko sarbidea irekitzeko ordua baino 30 minutu lehenago itxiko da.

Antzokirako sarrera itxita egongo da emanaldia hasi eta 15 minutura.

El museo permanecerá cerrado el 1 y 6 de enero, el 5 de enero por la tarde; en Carnaval, del 8 al 14 de febrero, el 22 de junio por las fiestas de San Juan, el 31 de julio y el 25 de diciembre. Y el 24 y 31 de diciembre por la tarde.

El acceso al museo se cerrará 30 minutos antes del horario de apertura.

El acceso al teatro se cerrará 15 minutos después del comienzo de la función.

EL  
DIARIO  
VASCO

FAMILIA  
turismoa

CDN  
Centro  
Dramático  
Nacional

TOLOSA

EUSKADI  
BASQUE COUNTRY

kutxa  
FUNDAZIOA

EUSKO JAIKARITZA

GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako  
Izena Abenduak



Elkarrekin Funtz  
de Gipuzkoa

